

Dogmaren aurka: Michael Swan-i erantzuna*

H.G. Widdowson

«Begirada kritikoa planteamendu komunikatiboari» izenburupean Michael Swan-ek idatzi eta oraingoaren aurreko bi zenbakietan (39/1 eta 39/2) argitaratu ziren bi artikuluei erantzuten die oraingo honek. Argudiatzen denez, Swanek desitxuratu egiten ditu gaur egun «planteamendu komunikatibo»tzat ezagutzen den hori eraiki duten ideiak, eta Swanen argumentuak ere berez kontraesankorrak dira. Autorearen ustez, Swanek huts egiten du IHI-ELTaren teoria edo praktikaz berak duen jarreraren frogak edo euskarriak eskaintzerakoan eta, horrela, erasotzen die nei merezigabe egozten dien hoben berberaren errudun bihurtzen da bera ere.

Michael Swanen bi artikulua idazlan guztiz zirikatzaileak dira, hitz ederez idatziak eta irakurtzeko kilikagarririk. Hau dena onartu behar zaio. Halere, esan beharra dago ez direla kontuz egindako analisi kritiko grinarik gabeko bezala irakurtzekoak. Areago dira akusazio bat, sentimenduz betea, berak erasotzen dituen ideiak irain pertsonaltzat hartuko balitu bezala Swanek. Eta teorikoak kritikatzeko eta aurreritzi anti-intelektualei atsegin emateko grinak batzuetan fartsa huts bihurtzen du eztabaida. Beraz, horien izen-

buruari dagokionez, artikulua hauek maiseatzaile eta kritikatzailerik diren neurrian bakarrik dira «kritikoak»: ez dira ebaluatiboak. Halere, zenbait arlotan badituzte gaizki-ulertzeak eta kontzeptu okerrak eta, beraz, bidezko da erantzun bat.

DOGMA ETA IKERKETA

Egin nahi nukeen lehen oharpena oso orokorra da, ikerketa intelektuala-
ren xedeaz. Hizkuntz irakaskuntzarako planteamendu komunikatiboari buruz aurkeztu izan diren ideiek ez dute osatzen, Swanek berak onartzen duen bezala, «doktrina-multzo koherente eta monolitikoa», eta ez dute aldaketa iraultzailetarako manifestu izateko asmorik ere izan. Beraz, eta definizioz, ezin dira dogma izan. Horrela hartzen baditu Swanek, gero erasotzeko jomuga hobeagoa izan daitezen hartzen ditu. Hau, gutxien esateko, tamalgarria da, zeren eta ideia hauek (gehienak behintzat) ikerketa positiborako gogoz proposatu bait ziren, eta berauen asmoa ez zen ohizko praktikak besterik gabe utzi eta kredo berri bat besarkatzera irakasleak bultzatzea, baizik eta,

* Ingeleseztik «Against dogma: A reply to Michael Swan, *ELT Journal* (39. bol., 3. zenb., 1985) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

alderantziz, praktika eta proposamendu hauen balorapen kritikoa egitea (hau da, ebaluatiboa, ez kritikatzailerdo maiseatzailea). Beraz, ikerketaren atzean zegoen asmoa doktrina-dogmatismoaren (berri nahiz zahar, iraultzailerdo erreakzionarioen) *aurka* ihardutea zen. Zirikatzea zen helburua, ez zerbait sinesteraztea; pentsamendua askatzea, ez ideia finkoak ezarri mugatzea. Agian zilegi izango zait neure lanetatik bi aipamen egitea. Swanek, arrazoren batengatik, transmititu nahi duen baieztapen doktrinarioaren inpresio guztiz okerra zuzentzeko:

«Liburu hau ez dago inola ere pentsatua hizkuntz irakaskuntzan ortodoxia «komunikatibo» berri baten propaganda egiteko. Aitzitik, sinesmena eta beronen inplikazio praktikoen oinarriaren ikerketa kritikorako deia da. Ez naiz ari kasu itxi bat aurkeztu nahian, ikerketa bat hasi nahian baizik». (Widowson 1978: x)

«Batez ere, erantzun ximpleen liluraz diharduen dogmaren erosotasuna ukatu behar diegu geure buruei». (Widowson 1979:262)

Kontzeptu oker hau azpimarratzeko izan dudana arrazoia ez da (batez ere) bidegabeki tratatua izateagatik nere haserrea adieraztea, Swanen beraren argudioa neurri handi batean deusezten duen ondorio batera iristea baizik. Izan ere, bere polemika zertzeko dogma bat sortzearen ondorioz, bera ere kontraesanean jausten da, kritikatzan ari den planteamenduari bidegabeki egotzen dion huts berbera eginez berak ere. Zera egiten du: ideiei multzo bat baliogabetu kredu dogmatiko bakar bat bailitzan, baina gero bere dogma bat jarri haren orde. Horrela, Swanek berak esan zezakeen bezala, garrasi itoa entzuten dugu, haurtxo komunikatiboa oraingoan estoldan beheara desgertzen den bitartean.

SORTZEN DIEN GALDERAK

Funtsean, badirudi, Swanen dogma

ikuspegi tradizionalaren berrespena dela, alegia, ikasleei gramatika, lexikoa eta idiotismoak irakatsi behar zaizkielea; eta hauen benetako erabilera komunikazio-xedeetarako ikasleek berek aurkitu ahal izango dutela zentzuan eta beren hizkuntza erabiltzen daukaten esperientzian oinarrituta. Use eta usage delakoei buruzko ideiak (komunikazioko erabilera eta hizkuntzako erabilera), esanahi egokiaren errealizazioa, estrategia komunikatiboak, negoziatzioa eta horrelakoak, teoriko horiek guztiek beren jerga ulerkaitzean txor-txor esaten dituztenak, ahuntzaren gauerdiko eztula dira eta beste ezer ez. Ikusleak pozarren barrez lehertzen ari direla ikusten ditugu. Gero dogma honen beraren aurka zuzenean zenbait gauza esaten da bi artikuluetan. Adibidez, onespenez hitz egiten du Swanek nozio eta funtzioen irakaskuntzaz: «Gure ikasleei funtzio garrantzitsuenak erabiltzen irakasten zaiela ziurtatu behar dugu: esate baterako, agurtzen, ados agertzen edo oharterazten». Baina zergatik da hau beharrezkoa, aurrez esan den bezala, adierazpen baten funtzioa (use) beti atera baldin badaiteke esaldiaren esanahia (usage) eta egoera zentzuz elkartuta eta, oharterazpenen kasuan, hain dibertigarriro (edo maltzurki) demostratu ere egin badu Wilberforce eta haren konplizeen anekdotaz? Eta Swanek onartzen badu egitura eta lexikoaz gain funtzioak irakatsi behar direla hizkuntzaren alderdi gisa, nola proposatzen du berak hau printzipiotan oinarritua egin beharko litzatekeela, berak hain zorrotz baliogabetu dituen use eta usage delakoei buruzko ideietara jo gabe? Berrirori ere, Swanek esaten digu beharrezkoa dela «ziurtatzea gure ikasleak mintzamen, ulermen, irakurmen eta idazmen aldetik prestatzen ditugula, beren helburuetarako trebetasuna lor dezaten». Baina, dogmaren arabera, ikasleek jadanik badakite nola egin gauza horiek: Inglesaren egituraren eta lexikoaren eza gutza besterik ez dute behar, eta beste

trebetasun hauek berez etorriko zaizkie. Beraz, zertarako behar dute entrenamendua? Zertarako arduratu behar dugu prestakuntza hauek irakasteaz?

Baita ere, esaten zaigu gelako ulertze-zereginen emaitza eskasaren arrazoietariko bat zera izan litekeela: «ikaslearen hizkuntz menderapena behar hainbatekoa badela hitzak deskodatzeko; baina honek ikaslearen ahalmen guztiak bereganatzen dituenenez, ez zaiola prozesatze-gaitasunik libre gertzen entzuten duena 'interpretatzeko'». Baina nola liteke hau, ulermena —hau da, hizkuntz elementuei testuinguruan balore komunikatibo egokia ematea— ikaslearen hizkuntz ezagutza eta bere ama-hizkuntza erabiltzearen esperientziaz jadanik lortuak dituen trebetasunekin konbinatuta automatikoki sortzen bada? Use/usage bereizketari garrantzi guztia ukatzen dion dogmaren arabera, deskodatzekak eta interpretatzekak ez lukete inola ere prozesu ezberdinak izan behar. Bateko jariotasunak (zernahi izanik ere hitz honekin Swanek ulertzen duena) eta besteko jariotasunak ez lukete ezberdinak izan behar. Halaber, esaten zaigu emaitza eskasaren arazo hau gerta litekeela ikasleak «ikasgelako testuak «benetako bizitza»ko testuen aldean hain modu ezberdinean irakurtzen ohitu direnez, ez direlako gauza komunikazio-zatitzat hartzeko». Baina nola gerta liteke hau? Hizkuntza ezagutzen badute, zergatik ezin automatikoki aplikatu ezagutza hori?

Eta, edonola ere, zer adierazi nahi du ikasleek testuak «modu ezberdinean» hartzen dituztela esateak? Zertan datza ezberdintasun hau 'komunikazio-zatitzat' hartzearen aldean? Galdera hauek kohesio eta koherentzia eta predikzio eta negozio-estrategien kontzeptuak kontutan izanda argitu litezke, baina «jerga»-mota hau onargaitza da; beraz, zehaztasun-falta harrigarriaz uzten gaitu, eta honek —Swanen beraren hitzak erabiliz— «ez digu ba-

tere laguntzen atzerriko hizkuntzak nola irakatsi ulertzen». Esaten zaigu testuak komunikazio-zatitzat hartzeko ikasleen ezintasuna metodologia eskasaren ondorioa dela eta «ikasgelan gertatzen dena aldatzea eskatzen duela soluzioak, ez ikaslearen baitan gertatzen dena». Zer da zehazki metodologia bat eskatzat eta beste bat ontzat hartzera eramaten gaituena? *Zer-nolako* aldaketa eskatzen da ikasgelarako? Eta azken batean zera galdegin daiteke: zer axola dio ikasgelan gertatzen dena aldatzeak, horrek ez badu ikaslearengan aldaketarik eragiten?

Honelako arazoez (zentzurik duten neurrian behintzat) hausnarketa arretatsu eta *teorikoak* behar dituzte. Ezin dira azalpen epelekin konpondu.

Behin eta berririo artikulu hauetan ikaskuntza eta irakaskuntzari buruz aurkitzen dugun zenbait baieztapen Swanek hain gogoz erridikulizatzen duen ideiei motari erreferentzia eginez bakarrik justifika, edo behintzat uler, litezke. Eta maiz, ikusi dugun bezala, baieztapen horiek ideia hauen baliotasuna aurreuposatzen dute, nahiz eta azpizokoz hondatzea izan haien asmoa.

ONESPENA BAINA KONTUZ

Beste nonbait ere, «planteamendu komunikatibo»tzat Swanek ulertzen duenaren alde onespenezko komentarioak egiten dira. Esaten zaigunez, «bertute asko» omen ditu. Zeintzuk ote dira? «Informazio eta ideia berriak omen ditu (gizarte-elkarreragineko hizkuntzaz, adibidez)». Zer informazio berri eta zer ideia berri? Batzuetan, badirudi gizarte-elkarreragineko hizkuntzak «hizkuntzaren alderdi estereotipatua, idiomatikoa» bakarrik esan nahi duela suposatzen duela Swanek, eta inbentario nozional/funtzionalak ematen duen motako «espresio kon-

bentzional eta idiomatiko»en bilduma bat bezala ikasi behar dela. Hizkuntz use delakoaren pragmatikei buruzko literaturari begiratu bizkor bat ematea nahikoa zukeen nozio sinplista hori baztertzeko. Baina pragmatikak, usageta use-ren arteko bereizketaren onarpenaren arabera daudelarik, «garrantzi txikia du atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzarako» eta edonola ere «lar-baloratua dago une honetan». Planteamendu komunikatiboari, halaber, «gure metodologian izugarritzko hobekuntzak» aitortzen zaizkio. «Planteamendu komunikatiboak agian metodologiaren arloan lagundu du gehien gure irakaskuntza hobetzen». Zeintzuk dira zehazki hobekuntza hauek? Edo zein printzipiotan daude oinarriturik? Eta nola gertatu dira, nonbait teorian hain akasduak eta praktikan hain garrantzigeak diren ideietan oinarrituak baldin badaude?

«Planteamendu komunikatiboa» arrazoitu gabe onestea ez da arrazoitu gabe gaitzestea baino hobea. Behar duguna zera da: hausnarketa argi eta garbiak, ongi informaturiko argudioak, Swanek inola ere ematen ez dituen horietakoak. Eta ez ditu inola ere ematen ardura handiagoa duelako «planteamendu komunikatiboa»ri erasotzeko, ulertu eta baloratzeko baino, eta horrela komenigarri iruditzen zaio bertsio desitxuratua asmatzea, bere ikuspuntuak eraginkortasun handiagoz aurkeztu ahal izateko. Ideia hauek hizkuntz irakaskuntza komunikatiboari buruzko ideien kontra baleude bezala aurkezten ditu. Baina ikuspuntu horietako asko, batez ere bigarren artikuluan agertutakoak, jadanik aztertuak izan dira ideia hauei buruz, nahiz eta Swanek, ezjakintasunez ala nahita, hori ez aitortu. Esate baterako, benetako datuak eta errealtatearen ikasgelako kopia edo birsorkuntza erabiltzeari buruzko eztabaida, askoz lehenago burutu zuten planteamendu komunikatiboaren inplikazioak bilatu nahi zituz-

ten beste batzuek. Era berean, aspaldidanik aitortu izan da gramatika eta lexikoaren garrantzia eta berauek irakatsi beharra funtsezko baliabide komunikatibotzat. Ezberdintasuna da gai hauek hausnartu beharreko gaitzat aztertu izan direla, eta ez bakarrik iritzia emateko». Gramatikaren irakaskuntza eraginkorrari nolabaiteko kontsiderazio sistematikoa eman diotenetariko gehienek nahiko lukete kuestionatu hizkuntzaren alderdi formal eta funtzionalak *bereizita* tratatzeko proposamena, zeina Swanek (ez oso apalki edo zalantzakor) uste sendoz azaltzen bait du, antza:

«Nolabait sinplifikatuz, esan liteke bi hizkuntz mota daudela: «estereotipatua» eta «kreatiboa». Syllabus semantikoak behar dira lehenengoa irakasten laguntzeko: syllabus estruktural/lexikalek bakarrik balioko digute bigarrena irakasteko».

Baieztape honen hizkuntzaren teoria eta pedagogiaren teoria auresuposatzen dituela ohartu behar dugu. Gutxienez, auresuposamendu teoriko hauek ahalik eta gehien esplizitatzea espero dugu, argitara ekarri eta eztabaidatuak izan daitezen.

Jakina, erosoagoa (eta komenigarriagoa) da ikerketa teorikoaren baliotasuna ukatzea eta, horren ordez, esperientzia eta zentzuaren izenean aurreritziatara errazki jotzea. Baina guk aldarrikatzen badugu gure ihardueren status profesionala dutela, aitortu beharrean gaude oinarritzat dituzten printzipioen balorazio arretatsua ere beharrezkoa dela. Eta analisi intelektual eta ebaluazio kritikoa gauzatzea eska lezake honek, ez iharduera espezializatu edo elitista bezala, zeregin praktiko-pedagogiko guztiari berez dagokion iharduera gisa baizik. Jakina, honetan ere badaude arriskuak: ideiak funtsgabeak edo gaizki eratuak izan litezke, txarto ulertuak edo oker erabiliak. Gutariko batzuek uste dugu merezi duela arrisku

horiek geure gain hartzeak. Beste batzuentzat, erantzun ximpleen lilura beti izango da baliagarri arrazonomendua-ren alternatiba erakargarri bezala.

BIBLIOGRAFIA

WIDDOWSON, H.G. 1978 *Teaching Language as Communication*. Oxford: Oxford University Press.

WIDDOWSON, H.G. 1979 *Explorations in Applied Linguistics*. Oxford: Oxford University Press.

AUTOREA

H.G. Widdowson Ingeleseko irakasle da Londreseko Unibertsitateko Hezkuntz Institutuan beste hizkuntzetako ikasleentzat. Aurrez Edinburguko Unibertsitatean izan zen irakasle, bertan egin zuelarik doktoretza ere; lehena-go, berriz, zenbait urtez British Council-ekin lan egin zuen Sri Lanka eta Bangladesh-en. Hainbat libururen autore ere bada, *Stylistics and the Teaching of Literature* (1975), *Teaching Language as Communication* (1978), eta *Explorations in Applied Linguistics* (1979). J.P.B. Allen-ekin *English in Focus* seriea (OUP) zuzendu zuen, eta *Reading and Thinking in English* (OUP) seriearen Zuzendari Elkartua ere bada. Beronen azken liburua, *Learning Purpose and Language Use*, OUPek argitaratu zuen 1983an. *Applied Linguistics* delakoaren zuzendari sortzaileetako bat ere izan zen.

Itzultzailea: Inaki Mendiguren

CONTRA EL DOGMATISMO: REPLICA A MICHAEL SWAN

Este artículo es una réplica a los dos artículos de Michael Swan («A critical look at the communicative approach») publicados en *ELT Journal* (39/1 y 39/2). En él se sostiene que Swan desvirtúa las ideas que han llegado a constituir lo que se conoce como «enfoque comunicativo» y que los argumentos de Swan

resultan en sí mismos contradictorios. Según el autor, Swan no consigue aportar pruebas o argumentos que apoyen su propia postura acerca de la teoría o práctica de ELT (enseñanza del inglés); así que se merece las mismas acusaciones que tan injustamente él realiza a aquellos cuyas ideas ataca.

AGAINST DOGMA: A REPLY TO MICHAEL SWAN

This article is a reply to the two articles entitled «A critical look at the Communicative Approach» by Michael Swan, which appeared in two issues of *ELT Journal* (39/1 and 39/2). It is argued that Swan misrepresents the ideas which have gone to make up what is now known as the «communicative approach», and

that Swan's arguments are in themselves contradictory. In the author's belief, Swan fails to offer evidence or support for his own position on the theory or practice of ELT, and is thus guilty of the same charge that he lays, undeservedly, at the door of those whose views he attacks.

CONTRE LE DOGMATISME: REPLIQUE A MICHAEL SWAN

Cet article est une réplique aux deux articles de Michael Swan («Un regard critique sur l'approche communicative») publiés dans *ELT Journal* (39/1 et 39/2). On soutient, dans cet article, que Swan dénature les idées qui sont parvenues à constituer ce qu'on appelle «l'approche communicative» et que les arguments de Swan s'avèrent contradictoi-

res en soi. D'après l'auteur de l'article, Swan ne réussit pas à apporter aucune preuve ou arguments à l'appui de sa propre posture, au sujet de la théorie ou de la pratique de ELT (enseignement de l'anglais); il mérite, donc, les mêmes accusations qu'il fait, si injustement, à l'égard de ceux dont il attaque les idées.